



## **XIX. AZPEITIKO SAN SILBESTREA**

### **ARAUDIA**

#### **1. ARTIKULUA**

XEYE Atletismo Taldeak, Azpeitiko Udalaren laguntzarekin, XIX. AZPEITIKO SAN SILBESTRE proba antolatu du 2021eko abenduaren 31 goizerako.

Hauek dira, oro har, lasterketaren datuak: 6 kilometroko lasterketa herrikoia Azpeitiko herri inguruan.

#### **2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Lasterketa honetan nahi duen orok parte hartu ahal izango du, kategoria, sexua edo nazionalitatea kontuan hartu gabe eta atleta federatua izan edo ez.

Parte hartzaile kopurua gehienez 700ekoa izango da.

Lasterkari bakoitzak bere erantzukizun pean parte hartzen du eta proba egiteko behar besteko maila fisikoa izango du.

#### **3. ARTIKULUA – IZEN EMATEAK**

Izen emateak azaroan irekiko dira, eta lasterketa hasi baino ordu bat lehenago itxiko dira. Beti ere, lehenago 700 dortsal betetzen ez badira.

##### **3.1 – IZEN EMATE MODUA**

Izen ematea internet bidez egin ahalko da helbide honetan: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) urriaren 7etik aurrera. Internet bidezko izen emateak abenduaren 29an (23:59tan) itxiko dira eta proba egingo den egun berean eta aurreko egunean izen emateak egin ahal izango dira Azpeitiko Berdura Plazan. Horretarako, abenduak 30ean Berdura Plazan izango gara 17:00tatik 20:00tara. Abenduaren 31an, berriz, goizeko 10:00tatik lasterketa hasi baino ordu bat lehenago arte egongo da izena ematea.

Aurrez izena emateko 10€ ordaindu behar ditu parte hartzaile bakoitzak. Abenduak 30ean eta 31an izena emateko 15€ ordaindu beharko ditu pertsona bakoitzak.

#### 4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Dortsala jaso ahal izango da, ondorengo egun eta orduetan:

ABENDUAK 30, ASTELEHENA: 17:00-20:00

ABENDUAK 31, ASTEARTEA: 9:00 -11:00

NAN txartela aurkeztea derrigorrezkoa izango da dortsala Jasotzeko.

#### 5. ARTIKULUA - LASTERKARIAREN POLTSA

Lasterkari guztiek ondorengo jasoko dute: dortsal- txipa, lasterketako elastiko teknikoa, edaria, eta zozketa orria, non zerbait irabazi duen edo ez jarriko duen. Elastikoak dortsal-txiparekin batera banatuko dira. Zozketarako hainbat produktu egongo dira, helmugara iristen diren parte hartzaile orori poltsa bat banatuko zaie, eta han izango dute orri batean idatzita zer suertatu zaien.

#### 6. ARTIKULUA - DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Irteeran eta helmugan kontrolak egongo dira. Lasterkari guztiek derrigorrez alfonbretatik pasa beharko dute. Probatik automatikoki deskalifikatu egingo dira lasterkari hauek guztiak:

- ⌚ Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
- ⌚ Dortsaleko publizitatea aldatu edo estaltzen dutenak.
- ⌚ Beste lasterkari batena den dortsala edo txipa erabiltzen dutenak.
- ⌚ Edizio honetarako eman zaion jatorrizko dortsala erabiltzen ez dutenak.
- ⌚ Helmugan dortsalik gabe sartzen direnak.
- ⌚ Epailen edo antolakuntzako jendearen aginduei kasurik egiten ez dionak.
- ⌚ Gogoratzen da baita ere erabat debekatuta egongo dela ibilbidean motordun ibilgailuak edo bizikletak ibiltzea antolakuntzakoak ez badira.

#### 7. ARTIKULUA - PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiek istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteteko joan etorrietan sortutako istripuak direnean.

#### 8. ARTIKULUA - MEDIKU LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku laguntza egongo da. Helmugan ere mediku laguntza egongo da. Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.

#### 9. ARTIKULUA.- SARIAK

1. Gizonezkoa/emakumezkoa Garaikurra

2. Gizonezkoa/emakumezkoa Garaikurra

3. Gizonezkoa/emakumezkoa Garaikurra

1. Azpeitiar gizonezkoa/emakumezkoa Garaikurra

1. Azkoitiar gizonezkoa/emakumezkoa Garaikurra

#### 10. ARTIKULUA - DUTXA, ARROPAK JASOTZEA ETA APARKALEKUA

Dutxak eta aldagelak Izarraitz Frontoian egongo dira, irteera eta helmuga puntuaren ondoan dagoena. Bertan utzi ahalko dira arropa edo bestelako poltsak lasterketa garaian.

Autoz iritsiko diren haientzat ondorengo aparkalekuak erabiltzea gomendatzen dugu: Soreasuko aparkalekua, Alberdieneako aparkalekua, Iraurgi Ikastetxeko aparkalekua edo Esklaben inguruko aparkalekuak.

#### 11. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, izen ematea egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute XEYE Atletismo Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izen ematea egin dutenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du XEYE Atletismo Taldeak duen helbidean (Garmendi – 3 - 2B. 20730 Azpeitia). Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.